

Lontxo Oihartzabal jn.
Lehendakaria

04/10 IRIZPENA

Javier del Campo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Ochoa jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko irailaren 16ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *EAEko ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako, Helduen Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetako eta Arte Eskoletako lan kontratuko langileen eta irakasle kidego zenbaitetako funtzionarioen lanpostu zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruz.*

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio *lanpostu zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruzko* aginduzko txostena ahal denik lasterren eman dezan.

Halaber, ikastetxeetako zuzendariak egindako memoria ere igorri dio.

I.- AURREKARIAK

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak haxe dio 13. artikuluan: “Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langileria beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak”. Ildo horretatik, 14.1 artikulua haxe jaso du: “lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratupeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz”.

Bestalde, Irakasle Kidegoen 2/1993 Legeak lanpostu zerrendak arautu eta berauek izan behar dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu, eta urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak, 47/1993 Dekretua bigarrenaz aldatzen duenak, berriz, lanpostuen hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak eta irakasle lanpostuetako aginduzko datak arautzen ditu (EHAA 00/01/20).

II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek zortzi artikulua, bost xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Artikuluetan aipaturiko eranskinak ere gehitu dira.

1. artikulua “Aretxabaleta” GLHBIa sortzen du; bigarrenak “Arrasate-Aretxabaleta” BHIaren berriazko izena aldatzen du, eta 3. artikulua I. Eranskinen zerrendatzen diren ikastetxeak banan-banan jaso eta haien integrazioa du autu.

4. artikulua 2004-05 ikasturteko LPZak onartzen ditu, eta lanpostu zerrenda horiek honako irakasle hauei dagozkie: lan kontratuko irakasleak eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioak (A Taldea), Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa (B Taldea), eta “iraungitze” egoeran dauden Irakaskuntza Ertainen Institutu Teknikoetako Irakasle Berezien Kidegoa (B Taldea). (II. Eranskina).

5. artikulua, EAEko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoari (A Taldea) dagokion 2004-05 ikasturteko LPZa onartzen du (III. Eranskina).

6. artikulua, Hizkuntza Eskola Ofizialetako lan kontratuko irakasleei eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) dagokien 2004-05 ikasturteko LPZa onartzen du (IV. Eranskina).

7. artikulua, EAEko Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetako lan kontratuko irakasleei eta Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) dagokien 2004-05 ikasturteko LPZa onartzen du (V. Eranskina).

8. artikulua, EAEko Arte Eskoletako lan kontratuko irakasleei eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) dagokien 2004-05 ikasturteko LPZa onartzen du (VI. Eranskina).

Lehen xedapen gehigarriak gorago aipatutako kidego bakoitzari dagozkion osagarri espezifikoaren munta zehazten du. Bigarren xedapen gehigarriak, osagarri espezifikoan sartutako dedikazio bereziko osagarri bat zehazten du, irakasleek lehen gradua egiaztatuz gero jasoko dutena. Hirugarren xedapen gehigarriak zehazten du zuzendaritza lanetan aritzeak unibertsitatez kanpoko funtzionario irakasleen ordainsariei buruzko ekainaren 26ko 177/1990 Dekretuan zehaztutako zenbatekoak jasotzeko eskubidea emango duela, halaber, horien munta ere finkatzen du.

Laugarren xedapen gehigarriak 1. hizkuntz eskakizuneko lanpostuak derrigortasun datarik gabekoak edo gaitututako derrigortasun datakoak izan daitezkeela zehazten du, eranskinetan jasotzen den bezala; 2. hizkuntz eskakizunekoak, aldez, atzeratutako derrigortasun datakoak edo gaitututako derrigortasun datakoak izan daitezke.

Bosgarren xedapen gehigarriak zehazten duenez, lekualdatze lehiaketaren bidez hornituko dira dekretu honen eranskinetan agertzen diren zerrendetako lanpostuak

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du abenduaren 16ko 307/2003 Dekretua, aurreko ikasturteko LPZa onartzen zuena.

Azken xedapenak Dekretua indarrean noiz sartuko den zehazten du.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Maisu-maistren LPZari buruzko 04/09 Irizpenean adierazi dugun bezala, oro har Bigarren Hezkuntzako lanpostu zerrenden mesedetan, irakasle murrizketa DBHn eta DBHOn gertatu den ikasle murrizketa baino kualitatiboki txikiagoa izan da. 2001-02 eta 2004-05 ikasturteen bitarteko datuak hartuta, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen beherakada %6,2koa da guztira (ikastetxe pribatuetan galera handixeagoa da), LPZ horien artean, aldiz, lanpostuak %2,5 baizik ez dira jaitsi.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak	2001-02	2004-05	Δ 3 urte	Δ 3 urte (%)
Ikasleak	67.375	63.222	-4.153	%-6,2
Irakasleak (LPZko lanpostuak)	7.913	7.705	-208	%-2,5
irakasleak/ikasleak desfasea				%+3,7

2003-04 ikasturteko LPZaren aldean, eta aurrekontuetan jasotako 6.557 lanpostuen kopuruak bere horretan dirauela, bete beharreko lanean gertatutako aldaketarik behinena zera izan da, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasgela arruntetan 92 lanpostu gutxitu direla, alta, aldi berean, lan kontratuko 86 lanpostu sortu dira erlijioiko irakasle izateko; gainerako lanpostu motetan, berriz, gorabeherarik handiena bost unitatekoa izan da.

Erljioko irakasleak lan kontratuko irakasle gisa Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxe publikotako LPZetan sartu izanari dagokionez, haien dedikazio erregimena Lan Sailaren bitartez arautzen da.

EBAZPENA, 2003ko abenduaren 19koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, "Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko erlijioiko irakasleen hitzarmen kolektiboa" erregistra eta argitara dadila xedatzen duena (EHAA, 2004/02/13).

Forma kontu batera itzultzea besterik ez bada ere, Eskola Kontseiluari dagokionean, txostena eman behar duenez gero LPZ honi buruz eta sindikatuen ordezkartza-rekin Administrazioak zehaztu dituen akordioen ondoriozko aldaketei buruz, gure iritzia alde zuzenetik emateko aukera behar genukeen, zeren eta autonomia mailan espezifikoki arautu nahi baita ikastetxeek baitezpada eskaini behar duten curriculum arlo bateko irakasleen egoera.

Alderantziz ere, 2003ko abenduaren 19ko ebazpenari berriro helduta, 6.4. artikuluan zehazten duenez, "Batzorde Paritarioaren esparruan, Administrazioak eta sindikatuek izango dute eskumena plangintzaren, plantillen eta hizkuntza eskakizunen ar-

loan, gizarte, kultura eta erlijio irakasgaia ematen duten irakasleak zuzenean ukitzen dituzten gaietarako erabakitzeak". Espero dugu Kontseiluari kontsulta egingo zaiola.

Berriz ere ikasle kopuruarekin alderaturik irakasle kopuruak izan duen bilakaeraren gaiari helduta, galera garbiak balira bezala zenbatuko bagenitu (92) erlijioak kendutako lanpostuak (86), berauek, lehenengo taulan erakutsi dugun 3,7 puntuko desfasearen %1,1 baizik ez lirateke, beraz, 2,6 puntukoa litzateke irabazi garbia LPZko 8.000 irakasle lanpostuen gainean, hau da, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako legokiek ena baino 200 irakasle gehiago, baldin eta azkeneko hiru ikasturteetan irakasle/ikasle ratioak bere horretan iraun balu. Xehetasun handitan sartu gabe, DBHko datua esku artean darabilgula, agerikoa da gehikuntza hau ez dela etorri ikasle/ikasgela ratioa hobetzerara. Hemen kontrakoa gertatu da, hain zuzen ere, ikasgela bakoitzeko ikasle kopuruak zertxobait gora egin duela.

DBH* (sare publikoa)	2001-02	2004-05	Δ 3 urte	Δ 3 urte (%)
Ikasleak	32.446	30.778	-1.668	%-5,1
Unitateak (ikasgelak)	1.825	1.672	-153	%-8,4
Ikasle/ikasgela ratioa	17,78	18,41	+0,63 ikasle/gela	%3,5

* Une honetan ez dugu daturik DBHoko unitateei buruz 2004-05 ikasturterako.

Nolanahi den ere, abantaila kualitatiboa da beste toki batean lanean jar daitekeen irakasle soberakina izatea, eta honi esker baliabide gehiago erabil daitezke proiektu espezifikoak koordinatzeko, Hezkuntza Sailak zehaztutako lehentasunezko lerroen barruan, aurrekontuan jasotako lanpostu kopurua handitu gabe. Halatan, bada, lehenago ere egiten zen bezala, hizkuntza normalkuntzako arduradun teknikoentzat zehaztutako orduak, gehigarri bezala zenbatzen dira ikastetxeko irakastordu kredituen gainean eta, era berean, IKT programako arduradunarentzat zehaztutakoak ere; hartara, 2004-05 ikasturte honetan, 4 izatetik, 4 eta 6 bitartekoak izatera iragan dira, ikastetxearen tamainaren arabera.

Aztertze dugu oraindik non jar litekeen gainerako soberakina. Beste elementu bat dago azalpena jaso behar duena, alegia, "ikasleak taxutu beharrekoak" arloan sailkatutako lanpostu kopuru handia; izan ere, hauek ikastetxe batzuetan oso proportzio handian daude (35eko plantilla batean 5, 64ko batean 9,...). Proportzio honetan, ehunka irakasle ateratzen dira LPZan. Zer egiten dute irakasle horiek? Zein da lanpostu horiek taxutzeko irizpidea? Ikastetxeak lanpostu horien diseinuan esku hartzeko ahalmena du? Hein handi batean hezkuntza indartzeko neurrietarako erabiltzen dira? Erabil ote litezke horietarako batzuk berrikuntzarako?

Beharizan berrietara lanpostu zerrenda osoak izan litzakeen egokitze posibleei dagokienez, ageri da Helduen Hezkuntza Iraunkorreko (HHI) irakasle kopurua ere ez dela handitzen ikasle kopurua hazten den hein berean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan gertatzen zen bezala. Hezkuntza Ikuskaritzak igorritako "2003-04 ikasturtean EAEko helduen hezkuntzan matrikulatutako ikasle etorkinen eskolatzeari buruzko azterlana eta analisisian" jasotako datuen arabera, 2001-02tik 2003-04ra bitartean matri-

kula 16.543 ikasle izatetik 19.353 izatera iragan da, igoera, beraz, %17koa izan da. Honelako ikastetxeetan artatutako ikasle etorkineei dagokienez, bi ikasturte hauetako tarte berean matrikula bikoiztu egin da, eta 1.297 ikasle izatetik 2.577 izatera iragan da. Batean zein bestean, goranzko joera etengabea da.

Ikastetxe hauetako LPZari dagokionez, beste urte bat luzatuz gero, hots, 2004-05 ikasturte honetara, LPZko irakasle kopurua 549koa izatetik 575ekoa izatera iragan da, igoera, beraz, %4,7koa baizik ez da, eta batik bat maisu-maistren LPZan izan da, izan ere, hauek 42 izatetik 442 izatera iragan dira; Bigarren Hezkuntzako LPZak, berriz, lau unitate baino ez du gora egin (129tik 133ra).

Nabarmentzekoa da hizkuntza eskakizunen bilakaera, bereziki Bigarren Hezkuntzako LPZan HHI ikastetxeetan, izan ere, Memorian jasotzen den bezala, %45,4tik %59,7ra iragan da azkeneko lau urteetan, eta azkenekoan ehuneko 5 puntu egin du gora. Ez dugu ahaztu behar, hala ere, HHiko lanpostu zerrenda guztietan oro har, maisu-maistrak gehiengo argia izaki, bigarren hizkuntza eskakizuneko lanpostuak guztira %42,4ra baino ez direla iristen ikasturte honetan.

Maiz ukitu den gai bati helduta, ez da aldaketarik ageri ikasturte hasierako Ebazpenean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasleen eskolarik gabeko dedikazio denboraren arauzko aplikazioari buruz zehaztutako puntuetan. Zehazki, Kontseiluak nahi luke, ikastetxean eman beharreko 23 orduetatik ikastetxeari dedikatzekoak diren 30 orduetara doazen zazpi ordu horietako tartea nola betetzen den ebaluatua izan ledin.

Ebazpenean jasotzen diren beste xedapen batzuei buruz ere, datu zehatzak izan nahi genituzke, zehazki:

- ✓ Ikastetxearen planteamendu instituzionalak: nola gauzatzen diren eta zertarako balio duten honakoek: IHP, ICP, AJA, Urteko Plana eta Ebaluazio Memoria.
- ✓ Noraino betetzen dituzte ikastetxeek arloak esleitzeko eta irakasgaiak irakasteko zehaztuta dauden irizpideak: DBHn irakasleen iraunkortasuna zikloan, ikasgela berean ahal denik eta irakasle kopururik txikiena irakasten izan...
- ✓ Nola antolatzen duen zuzendaritza taldeak asteko prestakuntza ordua Ikastetxearen Prestakuntza Planean (Urteko Planaren barruan).

Hauek guztiek, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen antolakuntza-garapena zein mailatakoa den adierazten dute.

Balorazioen edukia laburbildurik eta proposamenak era positiboan adierazirik:

1. Batzorde Iraunkorraren iritzian, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako lanpostu zerrendak ongi hornituak dira. Hezkuntza Erreforma ezartzearen ondorioz, Bigarren Hezkuntzako ikasleek banakako arreta handiagoa jasotzen dute —ikasle/irakasle ratioari dagokionez— aurreko etapetan baino. Matrikulak bi-

lakaera desberdina izan du etapa batzuetan eta besteetan (hazkunde jarraitua Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta Bigarren Hezkuntzan, aldiz, jaitsi egin da eta hala ari da oraindik ere), eta irakasleen kopuruak ez dira egokitu neurri berean, hori dela medio, banakako arretaren baldintzak hobetu egin dira goragoko etapetan. Administrazioak bideratu behar luke prozesu hau eta joera alderantzitu behar luke Haur Hezkuntzaren mesedetan batez ere, eta bai Lehen Hezkuntzaren eta HHIaren mesedetan ere.

2. Ez dago dudarik, ikasle/irakasle ratioa hobetuz gero, aniztasunaren arretarako eta hezkuntza indartzeko erabiltzen denean, eskola porrotaren prebentziorako ahalmena handitu egiten da, eta bai eskola porrota agertu ondoren bera tratatzeko ahalmena ere. DBHko azkeneko promozioan lortutako arrakasta (Bigarren Hezkuntzako graduatuen tasa aurrekoa baino 5 puntu gorago dago, hots, %81etik %86ra), ratio honen hobekuntzarekin lotuta dago.
3. Ikuspegi orokor batetik, lanpostu zerrendei dagokienez, gero eta hezkuntza zerbitzu hobe eskaintzeko joera dago epe luze eta ertainera (ikasle kopurua gero eta handiagoa den testuinguru batean alegia). Baliabideen aldetik, aurreikusita dago hezkuntzarako erabiltzen den BPGaren portzentajea puntu bat handitzea, epea finkatu gabe. Beraz, hedatze testuinguru honetan, komenigarria da irakasleen egonkortasunaren bermea handitzea, ezen egun ez dago bermaturik: behin-betiko destinoa izanik lanpostua deuseztaturik izango duten irakasleak eta bitartekoen, ordezkoen eta zerbitzu eginkizunetan daudenen kopuru handia.
4. Lan kontratuko erregimenean erlijioiko irakasleentzat 86 lanpostu sortu izana berritasuna da LPZari buruzko Dekretu honetan, eta Kontseilu honek aztertu beharko luke, haren garrantzia eta izan lezakeen hedadura direla medio, hala nola Administrazio Autonomikoak arautu duelako. Hartara, bada, 228/2002 Dekretua ordeztuko duen hurrengo dekretuaren zirriborroa igor dakigun aldarrikatzen dugu, ezen irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzeaz gain, plangintzarako oinarritzko neurriak ere zehaztu egiten ditu, besteak beste ikastetxeei lanpostuak esleitzeko irizpideak, hots, irizpen honen xedea, hain zuzen ere.
5. Ikastetxeak zehaztuko dituen proiektuak koordinatzeko berariazko ordu kredituak esleitzea positibotzat jotzen dugu, betiere Sailak zehaztutako lehentasunezko lerroen barruan. Komenigarria litzateke, arian-arian, ikastetxeak plantilla baliabideak izatea berariazko proiektuak garatzeko, berrikuntza eta ikuskaritza zerbitzuek baloratu eta ebaluatuko lituzketenak. Horrelaxe egin daiteke aurrera ikastetxeen autonomiarantz, pertsonalaren kudeaketari dagokionean. Kontseilu honek ez du analisi elementurik “ikastetxeak taxutu beharrekoak” arloan sailkatutako lanpostuek nola edo hala eginkizun hori betetzen ote duten argitzeko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2.004ko irailaren 20an

IDAZKARI TEKNIKOA

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz.Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.